# I ARABAKO FORU ALDUNDIA
# DIPUTACION FORAL DE ALAVA I

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

**4.943**

**84/2001 FORU DEKRETUA, uztailaren 24ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, honako foru dekretu haueta-ko hainbat xedapen aldatzen dira: ekainaren 29ko 86/1999 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 35/1998 Foru Arauaren zati bat garatzen duena; urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretua, kapitalaren errentetan eta zenbait ondare irabazitan atxikipenak edo konturako sarrerak egitera behartuta dauden pertsonei aplikatu beharreko araudia onartzen duena; abenduaren 14ko 147/1999 Foru Dekretua, lan etekinetan kontura egin beharreko atxikipen eta sarrerak arautzen dituena, eta maiatzaren 20ko 51/1997 Foru Dekretua, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 24/1996 Foru Araua araubidez garatzen duena.**

Foru Dekretu honen helburua da abenduaren 16ko 35/1998 Foru Araua (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen Foru Araua) garatzeko araudiak foru arau horri egindako azkeneko aldaketei egokitzea.

Hala bada, atzerrian egindako lanengatik jasotako etekinen kenkarien araudia aldatu da. Horren helburua izan da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauan egindako aldaketak araudi berrira egokitzea.

Berdin gertatu da ekainaren 29ko 86/1999 Foru Dekretuko 7.1.d) artikuluko aldaketarekin. Izan ere, aldaketa hori abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauko 9.w) artikuluan jasotako salbuespen berriarekin koordinatu da.

Azkenik, artikulu hauek aldatu dira: urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuko 24.1 artikulua, abenduaren 14ko 147/1999 Foru Dekretuko 10.1 artikulua, eta maiatzaren 20ko 51/1997 Foru Dekretuko 58.1 artikulua. Aldaketa horiekin, kontura egindako atxikipenen eta sarreren hileko likidazioaren beste kasu bat ezarri da. Izan ere, sartu egin dira enpresa edo lanbide ondarearen osoko edo zati bateko eskualdatzeak.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak gai horri buruz emandako txostena eta Aholku Batzordeak emandakoa ikusi ditugu.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu ondoren,.

XEDATU DUT:

**1. artikulua.- Ekainaren 29ko 86/1999 Foru Dekretua aldatzea. Foru Dekretu horrek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren zati bat garatzen du.**

Ekainaren 29ko 86/1999 Foru Dekretuan (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren zati bat garatzen duena) honako aldaketa hauek sartu dira:

**Bat**. Honela gelditu da idatzita 5. artikulua:

“5. artikulua.- Atzerrian egindako lanengatik jasotako etekinetarako salbuespena:

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araudiko 9.p) artikuluan ezarritakoaren arabera, atzerrian egindako lanekin jasotako etekinak salbuetsita egongo dira, honako baldintza hauek betez gero:

1. Lan horiek egoitza Espainian ez duten enpresa edo erakundeentzat, edo egoitza atzerrian duten establezimendu iraunkorrentzat egitea.

2. Lanak egiten diren lurraldean, izaera bereko edo antzeko izaerako zerga aplikatzea, eta lurralde hori paradisu fiskaltzat jotzen diren lurralde edo herrialdeetan ez egotea.

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

**4.943**

**DECRETO FORAL 84/2001, del Consejo de Diputados de 24 de julio, que modifica diversos preceptos del Decreto Foral 86/1999, de 29 de junio, de desarrollo parcial de la Norma Foral 35/1998, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas; del Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero, que aprueba la normativa a aplicar a las personas y entidades obligadas a la práctica de retenciones a cuenta en la renta de capital y determinadas ganancias patrimoniales; del Decreto Foral 147/1999, de 14 de diciembre, que regula las retenciones e ingresos a cuenta sobre los rendimientos de trabajo y del Decreto Foral 51/1997, del 20 de mayo, de desarrollo reglamentario de la Norma Foral 24/1996 del Impuesto sobre Sociedades.**

El presente Decreto Foral tiene por objeto adecuar los reglamentos de desarrollo de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, reguladora del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, a las últimas modificaciones operadas en esta Norma Foral.

Así, se modifica la regulación de la exención de los rendimientos del trabajo percibidos por trabajos realizados en el extranjero a fin de que la normativa reglamentaria coincida con la nueva redacción dada a esta materia en la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Otro tanto sucede con la modificación del artículo 7.1.d) del Decreto Foral 86/1999, de 29 de junio, que se coordina con la nueva exención recogida en el artículo 9.w) de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre.

Finalmente se modifica el artículo 24.1 del Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero, el artículo 10.1 del Decreto Foral 147/1999, de 14 de diciembre y el artículo 58.1 del Decreto Foral 51/1997, de 20 de mayo. Estas modificaciones establecen un nuevo supuesto de liquidación mensual de retenciones e ingresos a cuenta, al incorporar los supuestos en que se hayan producido transmisiones globales o parciales de un patrimonio empresarial o profesional.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

A propuesta del Diputado Titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada el día de hoy,

DISPONGO:

**Artículo 1.- Modificación del Decreto Foral 86/1999, de 29 de junio, que desarrolla parcialmente la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas**

Se introducen las siguientes modificaciones en el Decreto Foral 86/1999, de 29 de junio, que desarrolla parcialmente la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas:

**Uno**. El artículo 5 quedará redactado de la siguiente forma:

“Artículo 5.- Exención para los rendimientos del trabajo percibidos por trabajos realizados en el extranjero:

1. Estarán exentos del Impuesto, de acuerdo con lo previsto en el artículo 9.p) de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, los rendimientos del trabajo percibidos por trabajos efectivamente realizados en el extranjero, cuando concurran los siguientes requisitos:

1º. Que dichos trabajos se realicen para una empresa o entidad no residente en España o un establecimiento permanente radicado en el extranjero.

2º. Que en el territorio en que se realicen los trabajos se aplique un impuesto de naturaleza idéntica o análoga a la de este Impuesto y no se trate de un país o territorio calificado reglamentariamente como paraíso fiscal.

2. Salbuespena gehienez ere urteko 10.000.000 pezetakoa (60.101,21 euro) izango da.

3. Atzerrira bidalitako zergadunentzat, salbuespen hau ez da bateragarria izango Foru Dekretu honetako 6.A.3.b) artikuluan aipatutako tributaziotik kanpo utzitako soberakinen erregimenarekin. Zergadunak hala nahi izanez gero, salbuespen honen ordez soberakinen erregimena aplikatzeko eska dezake.”

**Bi**. Honela gelditu da idatzita 7. artikuluko 1 idatz zatiko d) letra:

“d) Langileen edo funtzionarioen heriotzagatiko prestazioak (nahiz publikoak, nahiz umezurtzen ikastetxeek eta antzeko erakundeek, enpresek eta erakunde publikoek ematen dituztenak) , edo ehorzketagatiko edo lur emateagatiko gastuak, baldin zergaren foru arauko 9. w) artikuluan ezarritako muga gainditzen badute.”.

**2. artikulua.- Urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretua aldatzea. Foru dekretu horren bitartez, kapitalaren errentetan eta zenbait ondare irabazitan atxikipenak edo konturako sarrerak egitera behartuta dauden pertsonei aplikatu beharreko araudia onartu zen.**

Urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretua aldatu da. Foru dekretu horren bitartez, kapitalaren errentetan eta zenbait ondare irabazietan atxikipenak edo konturako sarrerak egitera behartuta dauden pertsonei aplikatu beharreko araudia onartu zen.

“1. Konturako atxikipenak eta sarrerak egitera behartuta dagoen subjektuak, aurreko hiruhileko naturalari dagozkion atxikipenen edo sarreren zenbatekoen aitorpena aurkeztu beharko du apirileko, uztaileko, urriko eta urtarrileko lehenengo hogeita bost egun naturaletan. Orobat, kopuru hori Arabako Foru Aldundian sartu beharko du.

Hala ere, aurreko paragrafoan aipatzen diren aitorpena eta sarrera hileko lehen hogeita bost egun naturaletan egin beharko dira, aurreko hilari dagozkion atxikitako kopuruen eta kontura egindako sarreren arabera, baldin apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuko 71. Artikuluko 3 idatz zatiko 1 eta 1 bis zenbakietan adierazitako egoeretan dauden atxikitzaileak edo behartuak badira. Salbuespen modura, uztaileko aitorpena eta sarrera hil horren ondorengo abuztuan eta iraileko lehenengo hamar egunean egingo dira.

Atxikitzaileak edo konturako sarrera egitera behartuta dagoenak aitorpen negatiboa aurkeztuko du, baldin kopuruagatik atxikipenik edo konturako sarrerarik egin ez badu. Ezingo da aitorpen negatiborik aurkeztu, baldin aitorpen garaian atxikipenak eta konturako sarrerak egin ez badira.”

**3. artikulua.- Abenduaren 14ko 147/1999 Foru Dekretua aldatzea. Foru dekretu horren bidez, lan etekinetan kontura egin beharreko atxikipen eta sarrerak arautu ziren.**

Lan etekinetan kontura egin beharreko atxikipen eta sarrerak arautzen dituen Foru Dekretuko (abenduaren 14ko 147/1999 Foru Dekretua) 10. artikuluko 1. idatz zatia aldatu da. Honela gelditu da idatzita:

“1. Konturako atxikipenak eta sarrerak egitera behartuta dagoen subjektuak, aurreko hiruhileko naturalari dagozkion atxikipenen edo sarreren zenbatekoen aitorpena aurkeztu beharko du apirileko, uztaileko, urriko eta urtarrileko lehenengo hogeita bost egun naturaletan. Orobat, kopuru hori Arabako Foru Aldundian sartu beharko du.

Hala ere, aurreko paragrafoan aipatzen diren aitorpena eta sarrera hil bakoitzeko lehen hogeita bost egunetan egin beharko da, aurreko hilari dagozkion atxikitako kopuruak eta kontura sartutako kopuruak kontuan hartuta, baldin apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuko (Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudia onartzen duena) 71. artikuluko 3. idatz zatiko 1 eta 1 bis zenbakietan aipatzen diren atxikitzaileak edo behartuak badira. Salbuespen modura, uztaileko aitorpena eta sarrera hil horren ondorengo abuztuan eta iraileko lehenengo hamar egunean egingo dira.

Atxikitzaileak edo konturako sarrera egitera behartuta dagoenak aitorpen negatiboa aurkeztuko du, baldin kopuruagatik atxikipenik edo konturako sarrerarik egin ez badu. Ezingo da aitorpen negati-

2. La exención tendrá un límite máximo de 10.000.000 de pesetas anuales (60.101,21 euros).

3. La presente exención será incompatible, para los contribuyentes destinados en el extranjero, con el régimen de excesos excluidos de tributación previsto en el artículo 6.A.3.b) del presente Decreto Foral cualquiera que sea su importe. El contribuyente podrá optar por la aplicación del régimen de excesos en sustitución de esta exención.”

**Dos**. La letra d) del apartado 1 del artículo 7 quedará redactada de la siguiente forma:

“d) Las prestaciones por fallecimiento, y los gastos por sepelio o entierro que excedan del límite exento de acuerdo con el artículo 9.w) de la Norma Foral del Impuesto, de trabajadores o funcionarios, tanto las de carácter público como las satisfechas por colegios de huérfanos e instituciones similares, empresas y por entes públicos.”

**Artículo 2.- Modificación del Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero, que aprueba la normativa a aplicar por las personas y entidades obligadas a practicar retenciones o ingresos a cuenta en las rentas de capital y determinadas ganancias patrimoniales**

Se modifica el apartado 1 del artículo 24 del Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero, que aprueba la normativa a aplicar por las personas y entidades obligadas a practicar retenciones o ingresos a cuenta en las rentas de capital y determinadas ganancias patrimoniales, que quedará redactado de la siguiente forma:

“1. El sujeto obligado a retener y practicar ingresos a cuenta deberá presentar en los primeros veinticinco días naturales de los meses de abril, julio, octubre y enero, declaración de las cantidades retenidas y de los ingresos a cuenta que correspondan por el trimestre natural inmediato anterior e ingresar su importe en la Diputación Foral de Álava.

No obstante, la declaración e ingreso a que se refiere el párrafo anterior se efectuará en los veinticinco primeros días naturales de cada mes, en relación con las cantidades retenidas y los ingresos a cuenta que correspondan por el mes inmediato anterior, cuando se trate de retenedores u obligados en los que concurran las circunstancias a que se refieren los números 1º y 1º bis del apartado 3 del artículo 71 del Decreto Foral 124/1993, de 27 de abril, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido. Como excepción, la declaración y el ingreso correspondiente al mes de julio se efectuará durante el mes de agosto y los primeros diez días naturales del mes de septiembre inmediato posterior.

El retenedor u obligado a ingresar a cuenta presentará declaración negativa cuando, a pesar de haber satisfecho rentas sometidas a retención o ingreso a cuenta, no hubiera procedido, por razón de su cuantía, la práctica de retención o ingreso a cuenta alguno. No procederá presentación de declaración negativa cuando no se hubieran satisfecho en el período de declaración rentas sometidas a retención e ingreso a cuenta.”

**Artículo 3.- Modificación del Decreto Foral 147/1999, de 14 de diciembre, que regula las retenciones e ingresos a cuenta a realizar sobre los rendimientos del trabajo**

Se modifica el apartado 1 del artículo 10 del Decreto Foral 147/1999, de 14 de diciembre, que regula las retenciones e ingresos a cuenta a realizar sobre los rendimientos del trabajo, que quedará redactado de la siguiente forma:

“1. El sujeto obligado a retener y practicar ingresos a cuenta deberá presentar en los primeros veinticinco días naturales de los meses de abril, julio, octubre y enero, declaración de las cantidades retenidas y de los ingresos a cuenta que correspondan por el trimestre natural inmediato anterior e ingresar su importe en la Diputación Foral de Álava.

No obstante, la declaración e ingreso a que se refiere el párrafo anterior se efectuará en los veinticinco primeros días naturales de cada mes, en relación con las cantidades retenidas y los ingresos a cuenta que correspondan por el mes inmediato anterior, cuando se trate de retenedores u obligados en los que concurran las circunstancias a que se refieren los números 1º y 1º bis del apartado 3 del artículo 71 del Decreto Foral 124/1993, de 27 de abril, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido. Como excepción, la declaración e ingreso correspondiente al mes de julio se efectuará durante el mes de agosto y los diez primeros días naturales del mes de septiembre inmediato posterior.

El retenedor u obligado a ingresar a cuenta presentará declaración negativa cuando, a pesar de haber satisfecho rentas sometidas a retención o ingreso a cuenta, no hubiera procedido, por razón

borik aurkeztu, baldin aitorpen garaian atxikipenak eta konturako sarrerak egin ez badira.

Dagokion atxikipena edo sarrera zuzenean egingo da, etekinak ordaintzen dituen erakundea Arabako Foru Aldundia denean."

**4. artikulua.- Maiatzaren 20ko 51/1997 Foru Dekretua aldatzea. Foru dekretu horren bidez, uztailaren 5eko 24 /1996 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa, araubidez garatu da.**

Maiatzaren 20ko 51/1997 Foru Dekretuko 58. artikuluko 1. idatz zatia aldatu da. Foru dekretu horren bidez, uztailaren 5eko 24 /1996 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergaren araudi arautzailea onartzen duena, araubidez garatu da. Honela gelditu da idatzita:

"1. Konturako atxikipenak eta sarrerak egitera behartuta dagoen subjektuak, aurreko hiruhileko naturalari dagozkion atxikipenen edo sarreren zenbatekoen aitorpena aurkeztu beharko du apirileko, uztaileko, urriko eta urtarrileko lehenengo hogeita bost egun naturaletan. Orobat, kopuru hori Arabako Foru Aldundian sartu beharko du.

Hala ere, aurreko paragrafoan aipatzen diren aitorpena eta sarrera hil bakoitzeko lehen hogeita bost egunetan egin beharko da, aurreko hilari dagozkion atxikitako kopuruak eta kontura sartutako kopuruak kontuan hartuta, baldin apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuko (Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudia onartzen duena) 71. artikuluko 3. idatz zatiko 1 eta 1 bis zenbakietan aipatzen diren atxikitzaileak edo behartuak badira. Salbuespen modura, uztaileko aitorpena eta sarrera hil horren ondorengo abuztuan eta irailleko lehenengo hamar egunean egingo dira.

Ezingo da aitorpen negatiborik aurkeztu, baldin aitorpen garaian atxikipenak eta konturako sarrerak egin ez badira."

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria/Gasteiz, 2001eko uztailaren 24a.– Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

**4.944**

**85/2001 FORU DEKRETUA, uztailaren 24ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, honako foru dekretu hauetako hainbat xedapen aldatzen dira: abenduaren 14ko 147/1999 Foru Dekretua, lan etekinetan kontura egin beharreko atxikipen eta sarrerak arautzen dituena, eta maiatzaren 20ko 51/1997 Foru Dekretua, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 24/1996 Foru Araua araubidez garatzen duena.**

Foru dekretu honen xedea ordainketen gaineko atxikipenaren ehunekoa aldatzea da, Administrazio Kontseiluetako edo horiek ordezkatzen dituen Biltzarretako edo bestelako organo ordezkarietako administrariak eta kideak izateagatik jasotako ordainketei aplikatu ahal zaien atxikipenaren ehunekoa aldatzea, hain zuzen. Sartutako aldaketaren ondorioz, atxikipenaren ehunekoa % 40tik % 35era jaitsi da.

Bestalde, irudia ustiatzeko eskubidea lagatzeagatik edo eskubide hori erabiltzeko baimena emateagatik jasotako errenten kontura egindako atxikipen eta sarreren ehunekoa % 25etik % 20ra jaitsi da.

Bigarren aldaketa horrek Itun Ekonomikoko 12. artikuluan xedatutakoan du jatorria, eta ekainaren 29ko 12/2001 Erregeren Dekretu Legean xedatutakoa bete du. Dekretu horren bidez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontura egindako atxikipen eta sarrerei buruzko premiazko zerga neurriak onartu dira.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak gai horri buruz emandako txostena eta Aholku Batzordeak emandakoa ikusi ditugu.

de su cuantía, la práctica de retención o ingreso a cuenta alguno. No procederá presentación de declaración negativa cuando no se hubieran satisfecho en el período de declaración rentas sometidas a retención e ingreso a cuenta.

La retención e ingreso correspondiente, cuando la Entidad pagadora del rendimiento sea la Diputación Foral de Álava, se efectuará de forma directa."

**Artículo 4.- Modificación del Decreto Foral 51/1997, de 20 de mayo, por el que se procede a desarrollar reglamentariamente la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades.**

Se modifica el apartado 1 del artículo 58 del Decreto Foral 51/1997, de 20 de mayo, por el que se procede a desarrollar reglamentariamente la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades, que quedará redactado de la siguiente forma:

"1. El sujeto obligado a retener y practicar ingresos a cuenta deberá presentar en los primeros veinticinco días naturales de los meses de abril, julio, octubre y enero, declaración de las cantidades retenidas y de los ingresos a cuenta que correspondan por el trimestre natural inmediato anterior e ingresar su importe en la Diputación Foral de Álava.

No obstante, la declaración e ingreso a que se refiere el párrafo anterior se efectuará en los veinticinco primeros días naturales de cada mes, en relación con las cantidades retenidas y los ingresos a cuenta que correspondan por el mes inmediato anterior, cuando se trate de retenedores u obligados en los que concurran las circunstancias a que se refieren los números 1º y 1º bis del apartado 3 del artículo 71 del Decreto Foral 124/1993, de 27 de abril, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido. Como excepción, la declaración e ingreso correspondiente al mes de julio se efectuará durante el mes de agosto y los diez primeros días naturales del mes de septiembre inmediato posterior.

No procederá la presentación de declaración negativa cuando no se hubieran satisfecho en el período de declaración rentas sometidas a retención o ingreso a cuenta."

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, a 24 de julio de 2001.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

**4.944**

**DECRETO FORAL 85/2001, del Consejo de Diputados de 24 de julio, que modifica diversos preceptos del Decreto Foral 147/1999, de 14 de diciembre, que regula las retenciones e ingresos a cuenta sobre los rendimientos de trabajo y del Decreto Foral 51/1997, del 20 de mayo, de desarrollo reglamentario de la Norma Foral 24/1996 del Impuesto sobre Sociedades.**

El presente Decreto Foral tiene por objeto la modificación del porcentaje de retención aplicable sobre las retribuciones que se perciban por la condición de administradores y miembros de los Consejos de Administración, de las Juntas que hagan sus veces o de otros órganos representativos. La modificación introducida reduce del 40% al 35% el referido porcentaje de retención.

Por otra parte, se reduce del 25% al 20% el porcentaje de retención e ingreso a cuenta sobre las rentas procedentes de la cesión del derecho a la explotación de la imagen o del consentimiento o autorización para su utilización.

Esta segunda modificación tiene su origen en lo establecido en el artículo 12 del Concierto Económico y da cumplimiento a lo establecido en el Real Decreto-Ley 12/2001, de 29 de junio, por el que se aprueban medidas fiscales urgentes en materia de retenciones e ingresos a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre Sociedades.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.